

Txillardegia

Idazlea

Argi bila

■ *«Endangerment of the language implies endangerment of the identity of the Slovene nation in general», izkiriatu du berriki Zdrav-ko Mlinar irakasleak. Batere atzerakoa ez den soziologilariak, Esloveniako ardaztat dauka nazio-hizkuntza; eta gaur egun bertako kezka nagusien artean jartzen du eslovenieraren jatoriasunarena.*

Esloveniak bi milioi biztanle ditu, eta 20.251 kilometro karratu zabalera. Euskal Herriaren ahizpa bizkia (nazioen artean bizirik badago bederen), Herri menditsua, ekonomiaz aurreratua, maiz gertatu izan zaio inguruko inperioetako parte izatea. Austria-Hungaria-ko probintzia luzaz izan ondoren, 1945ean Jugoslavian sartu zen; eta bi ar horien aztarna ageri da hizkuntzaren mailan: alemana goiko hizkuntza izan ondoren, mende erdi batez serbo-kroazieraren nagusigo faktikoa jasandu.

Baina 1991ko ekainaren 25ean Askatasuna aldarrikatu zuen; eta geroztik aurrera doa azkarki eslovenieraren normalizazioa. Esloveniatic at daude oraindik Itria-ko esloveniarrak (Italian), eta Karintia-koak (Austrian). Baina esloveniarrak badute gaur beren Aberri Askatua, nazio-hizkuntzaren gainean eraikia.

Pujolek eredia Eslovenian dagoela esan eta errepikatu izan badu ere, gure artean jende gutxi ikusi nahi bide du Euskal Herriarentzako eredia Ljubijanan dugula.

Hots, berri on bat eman diezaieket gaur Esloveniara: ondoko aste hauetan kaleratuko dela *International Journal of Sociology of Language* aldizkari famatuaren 124. alea; eta ikergai nagusitatzat Esloveniako egoera soziolinguistikoa hartu duela.

Datu esanguratsu hau hasteko. 1994an inkesta bat burutu zuen Tos-ek. Galdera hau zen: «Zein hizkuntza arrotz beharko litzateke azpimarratu gaur egun baino areago?». Ingeles agertu zen gailen (% 40,5). Alemana bigarren (% 38,9), Austriaren aztarnari eutsi nahian antza. Eta kitto. Serbo-kroaziera agertu ere ez

Ongi-etorria ematera etorri zitzaigun Esloveniako Lehendakaria, Milan Kucan izenekoa. Kongresoaren mintzagaia hau zen: **Small Nations and Ethnic Minorities in the emerging Europe; eta Europa guztiko ordezkariak ginen hara joandakoak. Hots, Kucan Presidenteak eslovenieraz hitz egin zuen... eta kitto! Gainerakoa, aldebereko itultzaileen lana**

inkestetan. Italliera apur bat (% 4,6), frantses apurtxo bat (% 3,4). Esloveniaren gaztelania, aipatu ere ez. Noskil!

Beste ikuspegi bat orain: hiztegi argitaraketaz.

Azkeneko mende erdi honetan barrena, hiru hizkuntza ofizial izan zituen Jugoslaviak: serbo-kroaziera (Federazioko *inter-lingua* faktikoa); mazedoniera, eta esloveniera. Zer bilakaera dago hiztegien alorrean?

Hona hemen inkesta baten emaitzak (1980-1989 urteetan burututakoak). 1949z geroztik, 268 hiztegi argitara ziren Eslovenian. Esloveniera-Ingelesezkoak, 85 izan ziren (% 31,7). Ondoren Alemanezkoak, 68 hiztegi (% 25,4). Hirugarrenik Esloveniera-Italiarazkoak, 38 hiztegi (% 14,2). Laugarrenik, Frantsesezkoak, 24 hiztegi.

Serbo-Kroazierazkoak bostgarren postuan zetozen urte haietan (beherago ere jaitsi dira): % 9,0

bestetik ez hamar-urteko hartan... *No comment!*

Zientzietako Akademiaren, bestealde, eta Zientzia Hutsen Alorra kenduta (Zientzi alorreko ikerlanak ingelesez argitaratzen baitira Eslovenian; % 80,35), goi-mailako lanak ere eslovenieraz. Eslovenian: % 65,32 giza-zientzietan; % 80,18 Filologian eta Literaturan, eta abar. Serbo-kroazieraz ia-ia deus ez: % 1,08 Zientzietan alorrean; % 19,47 giza-zientzietan; % 13,25 Filologian eta Literaturan... Eta abar. Hemen bezalaxe!

Oraindik Senadore nintzelarik, 1992ko otsailean, Maribor-ko Kongreso hartan gertatu zena ez zait aisa ahantziko. Ongi-etorria ematera etorri zitzaigun Esloveniako Lehendakaria, Milan Kucan izenekoa. Kongresoaren mintzagaia hau zen: **Small Nations and Ethnic Minorities in the emerging Europe; eta Europa guztiko ordezkariak ginen hara joandakoak. Hots, Kucan Presidenteak eslovenieraz hitz egin zuen... eta kitto! Gainerakoa, aldebereko itultzaileen lana.**

Berriro ere: hemen bezalaxe!



Jose Luis Lizundia



Euskal merkatuak

A llande Sokarrosek Ipar-Ekialdeko merkatuek, bereziki Donapaleukoak, idatzi du duela gutxi. Amikuzeko merkatu hori ezagutzen dugu baina gauza interesgarriak esaten zituen artikulugileak. Eta horrek beste iradokizun batera garamatza, duela lau urte *Deia*-n idatzi nuen erantzun batetara. Esaten nuen lotsagarria zela, egun batzuk lehenago, sukaldari famatu baten ahotik, erakusten zen gure nazioaren zentzu murriztua «*Cuando se habla de mercados tradicionales, hay que pararse en Ordizia, Gernika o Tolosa...*». Euskal Herria Goleirrin hasi eta Arbola Santuaren ondoan bukatzen dela pentsatu beharrean Mauleko merkatuan jaigko zela Euzkaria eta Balmasedakoan larunbatean izkatuta. Euskal merkatuek hitz egikeran, eta ETBk batez ere, izugarriko erantzukizuna du, hedatu beharko litzateke astelehentean Gernikaz landa Donibane Garazin ere badela merkatu; asteartean Azpeitiaz gain, Agurainen, txikia bada ere. Ordizia eta beste asko baino zaharragoa, 1256ko data baitu; asteazkenetan, Ordizia eta Santikurutze Kanpezuko; ostegunetan, Donapaleu landa, Gasteiz, Tafalla eta Markina; ostiralean, Mungia eta Amurrio; larunbatean, Tolosaz aparte, Durango eta Balmaseda. Igandekoak berriagoak direla esango nuke, jai eguna errespetatzeagatik agian. Nire ustez gure komunikabide publikoek, Ordizia eta Gernikaren euskal merkatu zerrenda murriztua eman beharrean, Iparraldeko Donapaleuko ostegunetakoak ere sartu beharko lukete. Tafalla eta Gasteizkoak txandatu. Larunbatetako merkatu bat hartzekoatzat, ez nituzke euskal zonaldeetako Tolosa edo Durango emango, baizik eta Enkartzioetako hiriburukoa, oso interesgarria baita inguru hura ezagutzeko. *Gure Almanaka* gida on du bezalaxe Iparraldekoen albiste izateko. Egunkari honek ere esforzutu bat egin dezakeela uste dut.



J.L. Davant



Lehendakarisa?

A rdanza jaunak ez baitu bere karguan jarraiki nahi datozen hauteskundeetatik aurrera. Lehendakari berri baten hautatzeko pausoak hasi dituzte EAJn. Ni ez naiz alderdi horretako kidea, ez eta EAEn hirritarra. Hargatik uste dut edozein euskaldun bezala, ezin naizela Lehendakariatzat iritzi barik egun. Euskal Herriko buruzagi batek gutienez bete behar duen baldintza da euskaraz jakitea. Aznar espainiarrei frantsesez asmatzen ote dugu, edo Chirac frantsesei alemanez?

Hiru izen plazaratzen entzun ditut ETBk. beste hiru aipatu dira zerrendaren osatzeko posible bezala, eta gainera besterik agian: denak gizonak. Emakumerik ez ote da herri honetan? Bai, badago sonaturik, gizon politikoek bezainbat balio duenik aise, euskaraz ere badakienk ederki. Ez da beharrezkoa frantsesak eta espainiarrak bezain matxistak izan gaitzen, txapel hori uzten ahal diegu lasai. Lehendakarisa bat arren? Ez jaunak ez, -sa hori ez digute aholkatzen Emakunde eta Euskaltzaindiak, iradiziozko hitzetan ezik. *Andere Lehendakaria* erranen diogu beraz. *Señor Lendakari* bitxia baztertzuz.

L A P h I T Z A

